

Katebegiak

Jarduera honekin, zera landuko dugu

Konpromisoaren balioa

Iraupena

Jarduera hau saio bakar batean egiteko dago pentsatuta.

Zikloak 1 2 3

Garapena

Jar daitezela neska-mutil guztiak ilaran, besoak zabaldua, hatzen puntarekin elkarri ukituz, U handi bat osatuz, hormari ahalik eta itsatsien. U hori ez dadila itxi; ez dadila O bat bihurtu.

Denak prest daudenean, esan U horren mutur bakoitzean dagoenari objektu bat emango diogula (boligrafo bat, adibidez), eta saiatu behar dutela objektu hori beste muturrera eramaten. Arau batzuk bete beharko dituzte:

- Ezin dituzte oinak mugitu; dauden lekuan egon behar dute.
- Ezin dute objektua jaurti; eskutik eskura eman behar diote aldamenekoari.

Denek garbi dauzkaten argibideak, muturretan dauden bi pertsonen objektua eman, eta jarduerari hasiera eman. Lehen fase hau amaitutakoan, galderak egin:

- Iritsi al dira objektuak katearen beste muturrera?
- Bidean eragozpenik izan al da?
- Zaila iruditu al zaizue objektua elkarri pasatzea?

Ondoren, eskatu katearen erdialdean dagoen norbaiti, edozeini, katetik ateratzeko.

Berriz ere objektuak muturretan daudenei eman, eta saia daitezela beste muturreraino eramaten. Bigarren fase honetan ezinezkoa egingo zaie objektuak helmugaraino eramatea, arauak errespetatzen badituzte behintzat.

Hausnartu egingo dugu:

- Iritsi al dira objektuak beren helmugara?
- Zergatik ez?
- Katean pertsona bakar bat kenduta ezin izan duzue helburua bete?
- Bada esaera bat, hau esaten duena: «Katea ez da bere katebegirik ahulena baino sendoagoa». Pentsatu zer esan nahi duen.
- Katearen katebegi guztiak al gara beharrezko?

Bukatzeko, hurrengo testua irakurri.

¿Pentsatu al duzu inoiz honelakorik?

"Txklatu honxk xz dauka inolako akatsik; bxstxrik gabx, txkla batxk xz du bxxr lana xgin nahi. Gainxrako txkla guztiak oso ondo dabilta, baina txkla hau xz dabil ondo, xta, ondorioz, txstua xzin da ondo irakurri, xzta?

Bxraz, zuk xsan zxnzakx unitatx bat bxstxrik xz zarxla, xta, bxraz, xz dxla xzxr aldatuko bxstxxkin batxra jardun xdo xz jardun. Baina okxr zaudx: zurx bxharra daukagu; oso garrantzitsua zara gurxtzat.

Hurrxngo batxan, pxntsatzxn baduzu xz zarxla garrantzitsua, xdo bxstx norbait xrx xz dxla (gizaki bat, animalia bat, hxrrialdx bat...), gogora xzazu txklatu honxn kasua.

Arx gxhiago: pxntsa zxr gxrtatuko l%tzatxkxxn b% txkla has%ko bal%ra ga%zk% funtz%onatzxn... Xdo h%r\$... Xdo l&\$!"